

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

JASANGARRITASUN, NEKAZARITZA ETA NATURA INGURUNEAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 195/2024 Erabakia, apirilaren 9koa. Onespena ematea Arabako Lurralde Historikoan fruta arbolak ezartzeko laguntza lerroen 2024rako deialdiari

Foru Gobernu Kontseiluaren martxoaren 28ko 10/2023 Foru Dekretua, zeinaren bidez onesten baitira Arabako Lurralde Historikoan fruta arbolak ezartzeko laguntzak arautzen dituzten oinarriak eta 2023rako deialdia.

Dekretu horren 10.1 artikuluan xedatzen denez, urtero onetsiko da kasuan kasuko laguntza deialdia, eta, bertan, honako hauek jasoko dira: deialdiko laguntza lerroak, eskaerak aurkezteko epea eta lekua, gastuak eta eskatutako inbertsioak gauzatzeko epea, haiek justifikatzeko azken eguna, deialdia ebazteko gordetzen diren kredituak eta gastu onargarriaren mugak.

Arabako Foru Aldundiaren 2024ra luzatutako 2023ko ekitaldiko gastuen aurrekontuan badago kreditua laguntza horien 2024rako deialdia onesteko.

Nahitaezko txostenak ikusi dira, eta Jasangarritasun, Nekazaritza eta Natura Ingurunearen Saileko foru diputatuak proposaturik eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Onespena ematea Arabako Lurralde Historikoan fruta arbolak ezartzeko 2024ko ekitaldirako deialdiari, bat etorritz Foru Gobernu Kontseiluaren martxoaren 28ko 10/2023 Foru Dekretuak onartutako oinarri arautzaileekin. Hona hemen xehetasunak:

a) Deialdian jasotako neurriak:

- Laguntzak aholkularitza teknikoa emateko frutagintzan.
- Fruta arbolak landatzeko laguntzak.

b) Eskaerak aurkezteko epea eta tokia:

Eskaerak toki hauetan aurkeztu behar dira:

- Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorra.
- Vitoria-Gasteizko, Guardiako eta Laudioko Ogasun bulegoen erregistroa.

— Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16.4 artikuluan ezarritako gainerako erregistroetatik edozein.

Hala ere, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 14.2 artikuluan ezarritakoa betez, nahitaez aurkeztu behar dute telematikoki, egoitza elektronikoren bidez (<https://egoitza.araba.eus/eu/-/ayudas-implantacion-cultivos-frutales-territorio-historico-alava>), pertsona juridikoek, nortasun juridikorik gabeko erakundeek, nahitaez elkargoko kide izatea eskatzen duen jarduera profesional batean ari direnek (jarduera horretan egiten dituzten izapideetarako) eta Administrazioarekin elektronikoki harremanetan jartzera behartuta dagoen interesdun bat ordezkatzeko dutenak.

Hogei (20) egun natural izango dira eskaerak aurkezteko, foru erabaki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Epearen azken eguna baliogabea bada, hurrengo egun baliodunean amaituko da.

c) Eskatutako gastuak eta inbertsioak egikaritzeko epea eta haiek justifikatzeko gehieneko epea hau da:

— Frutagintzako aholkularitza teknikorako laguntzak: 2023ko urtarrilaren 1etik 2023ko abenduaren 31ra arteko gastuak onartuko dira. Eskaera egiteko unean, egindako gastuen justifikazioa aurkeztuko da, faktura eta horren ordainketaren egiaztagiria aurkeztuta, eta ez da beharrezkoa izango ordainketa eskaera aurkeztea. Laguntza hura eman eta berehala ordainduko da.

— Fruta arbolak landatzeko laguntzak: 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako landaketei dagozkien gastuak onartuko dira. Inbertsioak gauzatzeko eta justifikatzeko epea 2024ko abenduaren 30ean amaituko da. Salbuespen gisa, 2023ko irailaren 1etik aurrera hasitako landaketei dagozkien gastuak onartuko dira, baldin eta eskatzaileak ez badira onuradunak izan aurreko urteko deialdian.

d) Kreditu erresebak: Arabako Foru Aldundiaren 2024ko ekitaldira luzatutako 2023ko ekitaldirako aurrekontuetan partida hauek daude:

— Frutagintzako aholkularitza teknikorako laguntzak: 10.000,00 euro, Arabako Foru Aldundiaren 2024ko ekitaldira luzatutako 2023ko ekitaldirako gastuen aurrekontuko "Aholkularitza fruta arbolak ezartzeari buruz" izeneko 40101. G/414400/47000401 partidaren 2024ko urterokoaren kontura.

— Fruta arbolak landatzeko laguntzak: 191.059,31 euro, Arabako Foru Aldundiaren 2024ko ekitaldira luzatutako 2023ko ekitaldirako gastuen aurrekontuko "Ez-zurgaien labore alternatiiboak" izeneko 40100. G/419400/77000420 partidaren 2024ko urterokoaren kontura.

Kreditu horiek zenbateko gehigarriekin handitu ahal izango dira, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak 21. artikuluan ezarritako mugen barruan, baita aurrekontu partidetan edozein arrazoiengatik gerta litekeen kreditu gehikuntzaren bidez ere. Zenbateko gehigarri horiek, gehienez ere, partida bakoitzean hasierako zenbateko erresebatuak adina izango dira.

e) Gastu onargarriaren mugak.

Hauek dira gastu onargarrien mugak:

— Frutagintzako aholkularitza teknikorako laguntzak: onar daitekeen gehieneko gastua urtean 1.000,00 eurokoa izango da.

— Fruta arbolak landatzeko laguntzak: inbertsioa edo inbertsio osagarrien batura ustiapen batentzat gehienez ere 80.000,00 eurokoa izango da eta gutxienez eskari bakoitzeko 1.500,00 eurokoa. Eskatutako landaketak 3 ha-ko azalera gainditzen badu, diruz lagundu daitekeen gehieneko inbertsioa 150.000,00 euro izango da.

Bigarrena. Jasangarritasun, Nekazaritza eta Natura Ingurunearen Saileko titularrari ahalmena ematea foru dekretu hau garatu eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapenak eman ditzan.

Hirugarrena. Erabaki honek ondorioak izango ditu ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Laugarrena. Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio bideari, eta beraren aurka berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke organo berari, hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsoa jar daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, bi hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko apirilaren 9a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Jasangarritasun, Nekazaritza eta Natura Ingurunearen Sailaren diputatua

AMAI BARREDO MARTÍN

Nekazaritza zuzendaria

DAVID FERNÁNDEZ SARABIA